

{ koaderno } Iker Barandiaran

Berdintasuna

Hainbatek esan ohi dute feminismoa sobe-
ran dagoela, beste garai bateko borroka de-
la, erradikalegia dela, eta gaur egun berdin-
tasuna dela aldarrikatu behar dena. Beste
batzuek, horiengandik hurbil daudenek,
uste dute dagoeneko berdintasuna egon ba-
dagoela eta zenbait eragileren aldetik gizartera zabaltzen
diren mezu horiek lekuz kanpo daudela, ez direla beha-
rrezkoak. Eta, pauso txikiak badira ere, gure artean alder-
di politiko gehienek, hauteskundeetarako zerrendak osa-
tzerakoan, emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak
parekatzen dituzte. Bada hori zerbaiten seinale edo aza-
lean gelditzen da?

Etxean bertan daukadan adierazleari so egingo diot.
Azkenaldian, 3 urte pasatxo besterik ez dituen seme-
ari behin baino gehiagotan entzuten diot konbikzio handiz
esaten bera mutila dela eta ez neskak; mutilak indar-
tsuak direla eta neskak ez; eta nire azalpenei aurre egin
nahian neskek pistolak era-
biltzen dituztela zalantzan
jarri ostean handienak muti-
lak dituztela, beste perla as-
koren artean. Harrituta nago
esan horiek berari entzutera-
koan. Eta ziur dakit etxean
esanez ezta ekintzaz ez dio-
gula halakorik irakatsi ezta
erakutsi. Are gehiago, ahale-
gintzen naiz azaltzen guztiok
izan ditzakegula ezaugarri,
afizio eta izate askotarikoak,
berdin emakume zein gizo-
nek. Baina ez dago ados nik
esandakoarekin, eta mutikoa
burugogorra izanda ez du momentuz iritziz aldatu nahi.
Harrituta eta kezkatuta nago horrekin eta ez dakit zehatz
non ikusi eta ikasi ote duen hori. Izan ere, ez dut uste es-
kolan hezitzaileek halako eredurik transmitituko diote-
nik. Seguruena gizartean txertatuta ikusiko du hori.

Ama berriki izan den lagun batek amorratuta kontatu
dit umeari bere abizena jarri ahal izateko egin behar izan
duena. Antza, Espainiako Estatuan automatikoki umeak
aitaren abizena jasoko duela aurreikusten da eta horreta-
rako ez da inongo baldintzarik jartzen. Amaren deitura
jartzeko, berriz, ezinbestekoa da amak eta aitak –biek–
erabaki horren aldeko idatzi bat aurkeztea. Hortaz, aitak
eman behar du espresuki horretarako baimena, hori ga-
be ezin da. Jakina da, baina, aitaren abizena jartzeko ez
duela amak ezer esaterik, ez alde ezta kontra ere.

Ume, guraso eta berdintasun kontuekin jarraituta, se-
mearen haurtzaindegiko guraso elkarteko kide izatea
egokitu zait bi urtez. Aldiro guraso elkarteko kideen arte-
an aitak eta amak parekatzeko ahalegina egin arren, par-
taideen herena baino gutxiago izan gara gizonezkook.
Eta orain elkartea berriro behar izan den honetan orde-
z-
kari izateko aukeratutako gizonezkoen bikotekideek,
emakumezkoek –hain justu ere batzarrera etorri direnek,
besteak ez dira etorri– esan dute beraiek parte hartuko
dutela elkartean aukeratutako gizonezkoen orde-
z.

Gure umeen adin eta hezkuntza maila jarraiki, beste
eskola baten erabiltzaile gara orain. Berriro ere bozketak,
ordezkari aukeraketak eta hara non, hurbileko dudak gu-
raso batek, gizonezkoa, gaztea, jatorra eta ustez aurrera-
koa bera, aitortu didan bera ez dela inoiz guraso elkar-
te-
ko ordezkari izango, aukeratua izanez gero uko egingo
diola; eta derrigortzen badute bere neskak ikusi beharko
duela ardura hori hartu ala ez, baina berari ez eskatzeko.

Estatuan automatikoki umeak aitaren
abizena jasoko duela aurreikusten da eta
horretarako ez dago baldintzarik. Baina
amaren deitura jartzeko amak eta
aitak –biek– idatzi bat aurkeztu behar dute

Aldiz, guraso esparrutik kanpo kontzertuak eta beste-
lako ekintza kulturalak antolatzen dituzten hainbat eki-
menetan parte hartu izan dut luzaroan eta horietan gizo-
nezkoak izan gara nagusi; hainbeste, kasu batean izan
ezik gainontzekoetan emakumezkoen ordezkari-
za ia
hutsaren hurrena izan dela –kopuruan bai, baina oso
aberatsa parte hartze eta lan egiteko gogoan–. Eta justu
kontrakoa gertatzen da gaixo eta nagusiei asistentzia
emateko elkarrekin: horietatik gehienetan sostengu di-
ren emakume boluntario ugariak gabe ateak itxi beha-
rrean izango ziren.

Nola azalduko diot seme-ari alor guztietan berdintasu-
na bizi dugula, eta hala izan behar duela? Hori azalekoa
izan beharrean, egunerokoan txertatuta behar duen zer-
bait oinarritzeko dela? •